

TH I NK TA

Nafarroa Kultura
Cultura Navarra

Think Tank. Hausnarketa-eremua eta pentsamendu-topaketak		
3. THINK TANK LABORATEGIA: “(DES)BERDINKERIA KULTURAN”		
TOKIA: Artxibo Nagusia. maiatzaren Bia, z.g. 31001 Iruña _		Ekainaren 28a
ORDUTEGIA: 9:00 a 13:00	IKASLE KOP:	30
Email: plancultura@navarra.es	TELEFONOA	848 427184
<p>Zer da Think Tank?</p> <p>CNK pentsamendu-foroa da, Nafarroako kulturari lotutako ideiei buruzkoa. Gizarte zibilaren eta administrazio publikoen partaidetza-plataforma da, zeinean ezagutzak eta ideiak partekatzen baitira gaiaren araberako foroetan parte hartuta.</p> <p>Ideia-laborategia izan daiteke Think Tank-en euskarazko ordaina. Horixe lortu nahi baitu, hots, ideiak landu eta partekatu, aldi berean igortzailea eta hartzailea izan, eta adimen kolektiboak landu Nafarroako kulturari eta gizarteari gaur egun interesatzen zaizkien gaiei buruz.</p> <p>2018tik aurrera izango dira laborategi horiek erreferentzia Nafarroako kulturari, Kulturaren Nafarroako Behatokiaren abiaraztearekin lotuko baitira, eta arteak, ekonomia, posizionamendua, berrikuntza, kontzeptuak, garapena, gaurkotatzea eta etorkizuna, eta antolakuntza jorratuko dituzte ildo nagusi gisa.</p>		
LABORATEGIA: “(DES)BERDINKERIA KULTURAN”		
<p>XVIII. mende bukaeran hasi zenetik, feminismoak hiru helburu izan ditu, emakumeen emantzipazioarako beharrezko eta aski diren baldintzat hartu direnak: hezkuntza berdintasuna, berdintasun politikoa, eskubide zibilen berdintasuna. Hiruak erdietsiz joan dira. Alabaina, oraindik benetako berdintasunetik oso urrun gaude. Zer egin du huts? Zer falta da? Erantzuna, zalantzarik gabe, kulturari dago (eta ondorioa, hezkuntzan). Kultura nagusiak oraindik ere ordena patriarkala indartzen, legitimatzen eta betiketzen duten printzipioak, baloreak, kontakizunak... transmititzen ditu. Lantegi honen lehen zatian, Laura Freixasek, hainbat esparrutatik jasotako adibideekin (literatura, publizitatea, zinema...), ideologia patriarkala zer den eta nola transmititzen den azalduko digu. Bigarreanean, parte-hartzaile guztien artean irakurriko eta komentatuko dira zenbait testu, fikziozkoak eta ez fikziozkoak, genero ikuspegitik kulturaren ikuspegi sakontzeko.</p>		
Hizlaria: Laura Freixas		
<p>Laura Freixas (Bartzelona, 1958) idazlea da. Kritiko literario, itzultzaile, kazetari eta kultura kudeatzaile gisa ere aritu da. 2009an sortu zenetik eta 2017ra arte, kulturari genero berdintasuna bultzatzeko “Clasicas y modernas” elkarteko buru izan da. Zutabegilea da La Vanguardian eta Europako eta AEBko unibertsitateetan ikastaroak eta konferentziak eman ohi ditu. Argitaratu dituen azken liburuak Los otros son más felices eleberria (2011), El silencio de las madres y otras reflexiones sobre las mujeres en la cultura saiakera bilduma (2014) eta Todos llevan máscara. Diario 1995 -1996 egunkaria (2018) dira.</p>		